

**2021eko ABENDUAREN 30ean UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA** **13 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2021eko abenduaren 30ean, arratsaldeko zazpitan, Udaltzarrak bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Udaltzarako kide hauek bertaratu dira:

**Batzarburua** Xabier Txurruka Fernandez jn.

**Zinegotziak** Miren Letamendia Belloso and. (telematikoki)  
Jesus Arana Gomez jn.  
Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and.  
Iban San Martin Hernandez jn. (telematikoki)  
Leire Arana Olabarrieta and.  
Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. (telematikoki)  
Iker Basurko De Miguel jn. (telematikoki)  
Irene Urbieto Alberdi and.  
Koldo Uribarri Zenekorta jn.  
Itziar Murua Uria and.  
Ion Arozena Eizagirre jn.  
Mikel Goenaga Gubia jn. (telematikoki)  
Ainara Landa Argote and.  
Begoña Olaizola Elordi and.  
Xabier Etxaburu Elu jn.  
Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. (telematikoki)  
Eider Illarramendi Azkue and. (telematikoki)  
Gloria Vazquez Herranz and.  
Patxi Elola Azpeitia jn. (telematikoki)  
Oihane Delgado Pita and. (telematikoki)

**Idazkaria** Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

**Jarduneko kontu-hartzailea** Itziar Kortabarria Garitano and. (telematikoki)

Covid-19ak eragindako egoera dela-eta, aipatutako zinegotziek bideokonferentzia bidez hartu dute parte.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udaltzarrak.

## GAI-ZERRENDA

### **1.- 2021eko AZAROAREN 25eko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211230&punto=1>

Aho batez onartu dituzte, zuzenketarik gabe.

### **2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:**

#### **– 2021eko azaroaren 22tik abenduaren 23ra.**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211230&punto=2>

Segidan, Alkatetzak 2021eko azaroaren 22tik abenduaren 23ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

### **3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:**

#### **– 2021eko azaroaren 22tik abenduaren 20ra.**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211230&punto=3>

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko azaroaren 22tik abenduaren 20ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

### **4.- 2022. URTERAKO AURREKONTU OROKORRA. BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Espedientea: 2021D2000003

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211230&punto=4>

Akordio-zirriborroa irakurri eta gero, proposamena eztabaidatu da.

Proposamena bozkatu dute, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak:	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	9	8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak
Abstentzioak:	-	

Ondorioz, adierazitako botoekin proposamena onartu da.

2021eko azaroaren 11n egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak hasierako onespina eman zion Zarauzko Udalaren 2022. ekitaldirako AURREKONTU OROKORRARI. Barnean honako hauek ditu: udal aurrekontua bera, "Zarautz-Lur SA" udal sozietatearen aurrekontua eta aurrekontu bateratua.

Espedientea jendaurrean egon den epean, ondorengo erreklamazioa aurkeztu da:

- Eusko Alkartasunak (G01035062) sinatutakoa, aurrekontu-partida batzuk aldatzeko.

Udaleko kontu-hartzaileak espedienteari buruzko txostena egin ostean, eta ikusita espedientean dagoen dokumentazioa eta Antolakuntzako informazio-batzordeak horren alde emandako irizpena, Udalbatzarrak, gehiengoz,

## ERABAKI DU

**Lehena.-** Eusko Alkartasunak aurkeztutako erreklamazioaren tramitazioa ez onartzea.

**Bigarrena.-** Behin betiko onartzea Zarauzko Udalaren 2022. ekitaldirako AURREKONTU OROKORRA. Barnean honako hauek ditu: Udal Aurrekontua bera, "Zarautz-Lur SA" udal sozietatearen aurrekontua, eta Aurrekontu Bateratua.

**Hirugarrena.-** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea aurrekontuaren behin betiko onespina – kapituluz kapitulu laburtuta –, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, 15.3 artikuluan xedatzen duena betetzeko.

## 2022. URTERAKO AURREKONTU OROKORRA

### 1) UDALA

SARRERAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Zuzeneko zergak	8.390.100,00
2	Zeharkako zergak	550.000,00
3	Tasak eta bestelako zergak	4.954.347,00
4	Transferentzia arruntak	19.572.191,00
5	Ondare sarrerak	204.500,00
6	Inbertsio errealak besterenganatzetik eta hirigintzako jardueretatik ondori	20.000,00
7	Kapital transferentziak	14.500,00
8	Finantza aktiboak	30.000,00

9	Finantza pasiboak	10.298.546,26
	<b>Guztira</b>	<b>44.034.184,26</b>

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	12.698.657,87
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	17.166.864,60
3	Finantza gastuak	40.620,00
4	Transferentzia arruntak	4.094.960,02
5	Kreditu globalak eta beste ustekabeak	50.000,00
6	Inbertsio errealak	7.046.115,00
7	Kapital transferentziak	1.661.554,69
8	Finantza aktiboak	30.000,00
9	Finantza pasiboak	1.245.412,08
	<b>Guztira</b>	<b>44.034.184,26</b>

**2) ZARAUTZ - LUR**

SARRERAK

Kapitulua	Izena	Euro
3	Tasak eta bestelako zergak	74.800,00
4	Transferentzia arruntak	210.000,00
	<b>Guztira</b>	<b>284.800,00</b>

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	103.350,00
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	181.450,00
	<b>Guztira</b>	<b>284.800,00</b>

**UDAL AURREKONTU BATERATUA**

SARRERAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Zuzeneko zergak	8.390.100,00
2	Zeharkako zergak	550.000,00
3	Tasak eta bestelako zergak	5.029.147,00
4	Transferentzia arruntak	19.572.191,00
5	Ondare sarrerak	204.500,00
6	Inbertsio errealak besterenganatetik eta hirigintzako jardueretatik ondori	20.000,00
7	Kapital transferentziak	14.500,00
8	Finantza aktiboak	30.000,00
9	Finantza pasiboak	10.298.546,26

	<b>Guztira</b>	<b>44.108.984,26</b>
--	----------------	----------------------

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	12.802.007,87
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	17.348.314,60
3	Finantza gastuak	40.620,00
4	Transferentzia arruntak	3.884.960,02
5	Kreditu globalak eta beste ustekabeak	50.000,00
6	Inbertsio errealak	7.046.115,00
7	Kapital transferentziak	1.661.554,69
8	Finantza aktiboak	30.000,00
9	Finantza pasiboak	1.245.412,08
	<b>Guztira</b>	<b>44.108.984,26</b>

**5.- EUSKAL TRENBIDE SAREAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, TREN-GELTOKI BERRIAREN ETA TRENBIDE AZPIKO PASABIDEAREN ERAIKUNTZA FINANTZATZEKO. ERANSKIN ARGIGARRIA SARTZEA.**

Espedientea: 2020H9890001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211230&punto=5>

Akordio-proposamena irakurri eta gero, udal taldeek beren iritzia emateari ekin diote. Eta eztabaida amaituta, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

Aldeko botoak:	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	8	8 EH Bildu
Abstentzioak:	1	1 Podemos-Equo Berdeak

Horrenbestez, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

2020ko maiatzaren 14an egindako osoko bilkuran Udalbatzarrak onartu egin zuen ETS Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoarekin sinatu beharreko lankidetzahitzarmena, tren-geltoki berriaren eta trenbide azpiko pasabidearen eraikuntza-proiektua finantzatzeko. Oinezkoentzako pasabide horrek trenbidearen iparraldean eta hegoaldean dauden egoitza-guneak lotuko ditu.

Alde biek 2020ko maiatzaren 27an sinatu zuten hitzarmena. 2021eko udaran hasi da obra.

2021eko urrian, ETSk hitzarmenaren klausula batzuk aldatzea proposatu zion Udalari; klausula horietan obren aurrekontu zenbatetsia eta administrazio bakoitzak finantzatu beharreko zatia zehazten dira (bigarren, hirugarren eta laugarren klausulak).

Zenbateko horiek ez dute BEZa barne hartzen; aldiz, 2020ko maiatzean onartutako hitzarmenean, BEZa barne hartzen zuten.

ETSk adierazi du ez dela beharrezkoa izango Udalaren diru-ekarpena handitzea. Zergaren subjektu pasiboaren inbertsio-kasua aplikatuko da.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak hitzarmena aldatzeko proposamenari buruzko txostena egin zuen.

Lurraldeko udal informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz, honako hau **ERABAKI DU**:

**Lehenengoa.**- Onartzea ETS erakunde publikoarekin 2021eko maiatzaren 27an sinatu zen lankidetzaz hitzarmenaren aldaketa (bigarren, hirugarren eta laugarren klausulak), horietan aipatzen diren zenbatekoak BEZa barne hartu gabe daudela zehazteko.

**Bigarrena.**- Alkateak edukiko du hitzarmena aldatzeko eranskina sinatzeko eskumena, Udalaren izenean.

**Hirugarrena.**- Sektore Publikoaren 40/2015 Legearen 53.2 artikulua xedatutakoaren arabera, hitzarmen aldaketaren berri eman beharko zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

**"RED FERROVIARIA VASCA-EUSKAL TRENBIDE SAREA" ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKOAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN 1. GEHIGARRIA. HELBURUA: ZARAUZKO TRENBIDE-GELTOKI BERRIAREN ETA BILBAO-DONOSTIA TRENBIDEKO AZPIKO PASABIDEAREN ERAIKUNTZA-PROIEKTUA FINANTZATZEA ETA ERAIKITZEA.**

Bilbon, 2021eko \_\_\_\_\_aren \_\_ (e) (a) n:

#### **BILDUTA:**

Alde batetik, Iñaki Arriola López jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikitako "Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea" erakunde publikoaren presidentea, 48001, Bilbao (Bizkaia), Albia eraikina, San Vicente 8, 14. solairua.

Bestetik, Xabier Txurruka Fernández jauna, Zarauzko alkatea, 20800, Zarautz, (Gipuzkoa); udaletxea, Zigordia kalea, 33.

#### **PARTE HARTZEN DUTE:**

Iñaki Arriola López jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikitako "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" erakunde publikoaren presidentea, haren ordezkari gisa, horretarako baimena eman baitio Administrazio Kontseiluak 2021eko irailaren\* (e) ko bilkuran.

Xabier Txurruka Fernandez jauna, Zarauzko Udaleko alkatea den aldetik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikuluan agindutakoarekin bat etorritik, gehigarri hau formalizatzeko behar den ahalmena du, Udalak 2021eko \_\_\_\_\_aren \_\_ (e) (a) n egindako osoko bilkuran hartutako erabakiari jarraiki, Idazkariak emandako ziurtapenaren arabera.

Parte hartzen duten kontzeptuan jarduteko beharrezkoa den legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri alderdiek, eta:

#### **ADIERAZTEN DUTE:**

- I. Bi alderdiek, 2020ko maiatzaren 27an, "Red FERROVIARIA VASCAEUSKAL TRENBIDE sarea" zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren eta Zarauzko Udalaren arteko lankidetzahitzarmena sinatu zuten, Zarauzko tren-geltoki berria eta Bilbao-Donostia trenbideko azpiko pasagunea eraikitzeke proiektua finantzatu eta eraikitzeke.
- II. Hitzarmenaren xedea da "Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trebide Sarea" ente publikoak eta Zarauzko Udalak Zarauzko trenbide-geltoki berriaren eta Bilbao-Donostia trenbideko Zarauzko 85/688 KPko geltokiaren inguruko azpiko pasagunearen obrak finantzatu eta burutzeko elkarlanean nola jardun behar duten zehaztea, trenbidegeltokirako sarbidea aurreikusten baita geltoki horren bidez. Horri esker, egun dauden trenbideinstalazioak modernizatu ahal izango dira eta trenbide-trazadura hobeto integratzea udalerrian.
- III. Aipatutako Lankidetzak Hitzarmenak, bigarren klausulan, "Hitzarmenaren kontura finantzatu beharreko jarduerak" izenekoan, 13.053.303,76 €-ko oroharreko aurrekontua aurreikusi zuen, eta, horri dagokionez, adierazi zen zenbateko horrek barne hartzen zuela, halaber, zergei dagokien zenbatekoa, eta "BEZa barne" berariazko aipamena adierazi zen.
- IV. Hitzarmenaren hirugarren eta laugarren klausulek, "Euskal Trenbide Sarea-Red Ferroviaria Vasca ente publikoaren konpromisoak" eta "Zarauzko Udalaren konpromisoak" izenekoek, hurrenez hurren, erreferentzia bera egiten dute "BEZa barne" obren gutxi gorabeherako kostuaren banaketa eta onarpena zehazterakoan.
- V. Zergei dagokien zenbatekoa obren aurrekontuko 13.053.303,76 euroen barruan sartzeari buruzko aipamena ez da zuzena, eta bi alderdiekin zerikusirik ez duen ustekabeko akats eta/edo deskuidu baten ondorio da, onartutako, lizitatutako eta bere garaian Udalari bidalitako eraikuntzaproiektuan bertan ondorioztatzen den bezala.
- VI. Azaldutakoari jarraiki, eta aurrekontuaren gutxi gorabeherako kostua "BEZ gabe" dela eta, ondorioz, jatorrian sinatutako hitzarmenaren Bigarren, Hirugarren eta Laugarren Klausulak doitzen direla argituko duen gehigarri bat sinatu behar denez, alderdiek gehigarri hau sinatu dute, honako klausula hauen arabera:

#### **KLAUSULAK:**

##### **LEHENENGOA.- 2021eko maiatzaren 27ko hitzarmenaren bigarren klausula berrikustea eta aldatzea.**

Alderdiek, dokumentu hau sinatuta eta aurretik azaldutakoa oinarri hartuta, hasieran sinatutako hitzarmenaren bigarren klausularen edukia berrikustea erabaki dute. Klausula horrek, aurrerantzean, honako eduki hau izango du:

*"Bigarrena.- Hitzarmenaren kontura finantzatuko diren jarduerak.*

*Hitzarmenaren kontura finantzatuko da lehen atalean deskribatutako obrak gauzatzea. Obra horien aurrekontua 13.053.303,76.- da, BEZa kanpo. "*

**BIGARRENA.- 2021eko maiatzaren 27ko hitzarmenaren hirugarren klausularen b) letra berrikustea eta aldatzea.**

Alderdiek, dokumentu hau sinatuta eta aurretik azaldutakoa oinarri hartuta, hasieran sinatutako Hitzarmenaren Hirugarren Klausulako b) letraren edukia berrikustea erabaki dute. Klausula horrek, aurrerantzean, honako idazkera hau izango du:

"Hirugarrena.- Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoaren konpromisoak.

- a. ... (berdin jarraitzen du).
- b. Obren kostu zenbatetsiaren %66,77 jartzea zati bat finantzatzeko; aurrekontua 8.706.553,57 eurokoa izango da. BEZik gabe.
- c. ... (berdin jarraitzen du).
- d. ... (berdin jarraitzen du). "

**HIRUGARRENA.- 2021eko maiatzaren 27ko hitzarmenaren laugarren klausularen c) letra berrikustea eta aldatzea.**

Alderdiek, dokumentu hau sinatuta eta aurretik azaldutakoa oinarri hartuta, hasieran sinatutako hitzarmenaren Laugarren klausulako c) letraren edukia berrikustea erabaki dute. Klausula horrek, aurrerantzean, honako eduki hau izango du:

LAUGARRENA.- Zarauzko Udalaren konpromisoak.

- a. ... (berdin jarraitzen du).
- b. ... (berdin jarraitzen du).
- c. Obren kostu zenbatetsiaren %33,33 jartzea, 4.346.750,13 euroko aurrekontuarekin. BEZik gabe, obren exekuzioa zati batean finantzatze aldera. Horretarako, honako urteko ekarpen hauek egitea aurreikusten da:

2020: % 3,33.  
2021: % 10.  
2022: % 10.  
2023: % 10.

- d. ... (berdin jarraitzen du).
- e. ... (berdin jarraitzen du). "

**LAUGARRENA.- Mantentzea eta indarraldia.**

Gehigarri honetan berriaz berrikusi eta jaso ez den guztirako, indarrean jarraituko dute eta aplikatuko dira bi alderdiek 2020ko maiatzaren 27an hasieran sinatutako hitzarmenaren klausulak.

Eta ados daudela adierazteko, alderdiek dokumentu honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

**6.- ESKARI-GALDERAK.**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211230&punto=6>



Gai-zerrendako puntu honetan, Arocena jaunak alkateari galdetu dio nolatan erabiltzen duen Facebook udaleko gaiei buruzko informazioa emateko, baita Zarauzko Udaleko webgune ofizialean edo prentsan argitaratu aurretik ere, eta horren adibideak eman ditu. Horrez gain, zenbait pertsona edo talde blokeatu izanari buruz ere galdetu dio, eta zergatik pertsona batzuek ez duten, ondorioz, informazioa jasotzeko eskubiderik.

Alkateak erantzun dio XXI. mendean gaudela, sare sozialak informazio-bideak direla, eta hauteskunde-kanpainan alkateari gertutasuna eskatu zitzaiola.

Esan du gaur egun informazioa jasotzeko bide asko daudela, eta talde edo pertsona batzuk blokeatu dituela errespetua falta ziotelako, baita irandu ere.

Azkenik, COVID-19ak udalerrian duen intzidentzia-tasa larriari egin dio erreferentzia, eta arduraz jokatzeko deia egin du.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak 2022 urte berrirako bakea eta osasuna opa die zarauztar guztiei.

Ondoren, osoko bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zortzi eta hogeita hamabostean; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.